



Etxe Madarikatua

Olaia, bere lagun Iñigo, Iker, Maddalen, eta Anerekin trenean zihoan. Azaroko zubi hura zela eta, Bizkaiko kostan, Garazi izeneko herri txo batean zegoen albergea hartu zuten. Larunbata zen. Goizean 9:30etako trenea hartu zuten Tolosan. Ondoren, Donostian kostako trenetan sartu ziren. Oraindik ordubeteko bidea zuten trenez, baina bost gazteak alai eta umoretsu aurkitzen ziren, gurasorik gabe; nahi zutena egin ahal izango zuten bost egun horiek ahalik eta ondoen pasatzeko.

Olaia leihotik begira zegoen. Orain bidaia hori egiteko bidean baldin bazeuden ere, ahal legin haundiak egin ondoren zen. Urriaren hasieratik hasi ziren bidaia planeatzen. Kultur etxean albergeen izenak zerkartzan orri sorta bat eman zieten eta bost laguneren artean lekuak aukeratzen hasi ziren. Hamar bat aukeratutakoan, bertako telefonoetara deitzen hasi ziren, lekua hartu asmoz. Olaia aritu zen bere etxetik leku desberdinetara deitzen. Baina, itxita ez zeudenak, jadanik hartuak zeuden. Azkenik, Garaziko telefonoa ikusi eta hara deitu zuen, hutsik aurkitzeko esperantza handiegirik gabe.

Deitu zuenean, emakume zahar batek erantzun zion telefonoaren beste aldetik. eskuetan zuen orrian, Patxi ageri zen arduradun bezala. Beraz, emakumeari Patxiren galdera egin zion.

—Momentu honetan ez dago etxean, neskatok —erantzun zion emakumeak—, enkarguren bat uztea nahi al duzu?

—Beno, Gipuzkoatik deitzen dut eta horko albergeaz galdetzeko zen. Azaroko zubi honetan, albergera egun batzuk pasatzera joan nahi genuke. Zuk ba al dakizu libre ote dagoen?

—Oh, ez, beste batzuk ez, esan zuen emakumeak ahopean.

—Zerbait gertatzen al da? galdetu zuen Olaiak, emakume haren erantzunaz erabat harriturik.

—Ezer ez, neskatok. Beno, albergea libre dago, beraz, nahi baduzu, Patxiri esango diot zuei lekua gordetzeko eta bihar deituko diozue diru kontuak konpontzeko.

Oraindik ere, elkarrizketa hura oroitzean, emakumeak ahopean esan zuena etortzen zitzaion burura, «oh, ez, beste batzuk ez». Zer esan nahi izan ote zuen horrekin?

Hurrengo egunean Patxirekin hitz egin zuen eta hau oso jatorra iruditu zitzaion Olaiari.

Bere ondoan eserita, besteak kantari ari ziren. Bere lagunak, bera bezain animaturik zeuden oporralditxo txiki harekin. Izango zuten iritzia aldatzeko astia, bai.

.....

Trenetik jaitsi orduko Patxiren etxe aldera abiatu ziren, bertan giltza hartzeko. Bidea aurkitzea pixka bat kosta bazitzairen ere, herri hura txiki samarra zen eta buruauste handirik gabe iritsi ziren haren etxera.

—Kaixo, gazteok, albergea ondo zainduko didazue, ezta? —Patxi, Olaiak imajinatu zuen bezalakoxea zen. Txikia, lodikotea eta aurpegi alaikoa.

Patxi, Maddaleni albergerako bidea zein zen adierazten ari zen, besteak alde batera eta bestera begira zeuden bitartean:

—Beno, esan dizudan bezala, ez da batere zaila leku hura aurkitzea. Hemendik aurrera jarraituz gero, hondartzara iritsiko zarete. Ondoren, hondartzatik urrundu gabe aurrera jarraitzea besterik ez duzue. 500 bat metrotara, etxe haundi zahar bat aurkituko duzue. Hondartzatik oso gertu dago eta etxe atzetik mendirako bidea daukazue.

—Herritik urrun dago orduan? galdetu zuen Iñigok.

—Beno, pixka bat bai, baina, orain inguru honetan ez du eguraldi oso txarrik egiten eta bai egunez eta bai gauez etorteko ez duzue hain zaila.

Olaiak isil-isilik begiratzen zion gizon lodikote hari, haren ahotik ateratzen ziren hitzei kasurik egin gabe. Leku polita zen hura. Trenetik jaistean, hondartza ikusi zuen. Orain udazkena zen eta ez zegoen inor uretan, baina baloiarekin ibiltzeko edo paseatzeko leku ezin hobeoa zen.

.....

—Beno, Patxi, asteazken eguerdian etorriko gara giltza itzultzera.

Bost lagunak, gizon lodikotea agurtu ondoren, hondartza ertzetik albergerantz abiatu ziren.

—Leku polita dirudi honek, esan zuen Anek. Jo, ze ondo pasatu behar dugun.

Ane nesketan gazteena zen, baina zuen al-tuerarekin zaharrena zirudien. 17 urte zituen. Sorbaldaraino iristen zitzaion ile beltzarana eta bere begiak urdin kolorekoak ziren. Normalean nahiko isila zen, eta orain, kantari eta saltoka ikustean, Olaiak harriturik begiratzen zion:

—Zer dela eta horrelako umorea Ane?

—Ai, Olaia, zein ondo pasatu behar dugun. Ikusiko duzu! Nire biziko oporrik onenak izango dira.

Momentu hartan, ideia hura lapurtu eta eramane nahirik bezala, haize hots batek astindu zuen Olaiaren aurpegia.

.....

Kajoitik labana atera zuen. Lan honetarako dizdirarazi egin beharko zion. Bai, labanak garbitutxo bat behar zuen. Hemendik aurrera ez zen hilketa gehiagorik izango.

.....

Patxik esanda bezala, 500 bat metro egin zitu-tuztenean, beren aurrean ikusi zuten etxe zaharkitu hura. Kanpotik ikustean, hain zaharra zirudien, bost lagunak hura ote zen galdezka geratu zirela.

Hura zen, bai. Maddalenek giltza sarrailan sartu orduko ate haundi hura ireki egin zen. Barrua ilun zegoen. Paretean bila ibili ondoren, Maddalenek, argiaren botoia aurkitu zuen. Hau zapaldu orduko, etxea argitasun izugarri batek bete zuen. Egongela haundi batean aurkitzen ziren. Erdian bi eserleku luze zeuden eta hauen parean tximinia zaharkitu bat. Bost lagunak barrura sartu ziren.

Ezkerretan ate bat zegoen sukaldera ematen zuena. Hau ez zen oso haundia, baina, beraiantzako nahikoa. Olaiak sukaldeko pertsianak ireki zituen, eguerdiko eguzkia sar zedin. Ondoren egongelara joan zen. Bere lagunak eserlekuak probatzen ari ziren.

—Ze polita. Eta ze eserleku erosok dituen. Ez gara ez bizkarreko minez itzuliko etxera.

—Begira, Olaia! esan zion Ikerrek tximinia ondotik.

Egongelako pertsiana guztiak ireki eta argia itzali ondoren, bere lagunarengana gerturatu zen. Tximinia gainean, bi ertzetan, bi kandela zeuden. Iker erdira begira zegoen; bertan kristalezko irudi bat zegoen. Gizon txikia zen. Eskuetan borobil formako irudi arraro bat zuen. Buruan txapela zeraman eta aulki batean eseria zegoen. Iruditik, kristalezko gizontxoak Olaiari begietara begiratzen zion zuzen-zuzen, ikusi egingo balu bezala.

—Ze polita den, eh? Nork ekarri ote zuen hona? Nahiko baliotsua dirudi.

Olaia gizontxoari begira zegoen, bere begiradak harrapatuta.

.....

Olaia eta Iker kristalezko gizontxoari begira zeuden bitartean, Armenio bere egurrezko etxean zegoen aizkora zorrozten.

Armenio Garaziko mendiko aizkolaria zen. 50 urtetik gora zituen eta bere zakurraz aparte, bakar-bakarrik bizi zen mendi gain hartan. Basoan aizkoran aritzen zen eta hortik ateratzen zuen jateko behar zuen diru apurra. Hilean behin bakarrik jaisten zen herrira, kasu berezietan izan ezik.

Egun hartan, goizean goiz jaikita zebilen. Aste horretan gazte batzuk albergera etortze-koak zirela jakinaren gainean zegoen. Ordu-rarte horrenbeste itxaron ondoren, bere desioa jada jasangaitza zen. Gauak eta egunak eman zituen egingo zuena imajinatzen, eta azkenean, iritsi zen eguna. Oraindik egun bat edo itxaron beharko zuen gazteak ikusi ahal izateko, eta artean, aizkorari ez zitzaion gaizki etorriko garbitutxo bat, gero zikina egoteko aukera izango baitzuen.

.....

—Ogia, arrautzak, haragia... Zer gehiago behar dugu, Olaia?

Eskuetan zuen papertxoari begiratu, behar zuten guztia hartu zutela konturatu zen.

—Ezer, ez, Maddalen. Ez dugu ezer gehiago behar.

Eguerdian, goiko solairuan egon ziren. Bertan, beste bi gela aurkitu zituzten bakoitzean 15 bat litera zeudelarik, eta ondoan komuna.



Orain, etxetik ekarritako ogitartekoak hondartzan eserita jan ondoren, herriko supermerkatuan zeuden.

Gurditxoa ia goraino beteta zeukaten jadanik, baina ez janariz. Haragi, ogi, arraultzea eta gaileta batzuk hartu zituzten, baina, gaintzeko guztia edariz betea zegoen; kokakola, ardoa, limoia eta naranjazko kasak eta baita zenbait zerbeza lata ere.

Gurditxoari bultza eginez, kaxara joan ziren. Beren aurrean, emakume argal bat ari zen kaxazainari bere alabaren arazoak kontatzen. Bost gazteak ikusi zituenean, poltsak hartu eta alde batera baztertu zen, istorioa kontatzeari utzi gabe.

—Kaixo, gazteok, norä zoazte horrenbeste gauzarekin?

—Hondartza ondoko albergean gaude bost egun hauek pasatzen —erantzun zuen Iñigok.

Emakume argalaren aurpegian beldurra isladatu zen. Begiak erabat ireki zituen eta bapatean zuritu egin zen. Olaiä begira zeukala konturatzean, beste alderantz begira jarri zen.

—A, bai? galdetu zuen kajazainak. Patxik eman al dizue giltza?

—Bai, zerbait gertatzen al da, ba?

—Oh, ez, ezer ez. Beno, hona hemen kontua.

Olaiak poltsikotik dirua atera eta kaxazainari ordaindu zion. Zer gertatzen ote zen etxe hartan? Zergatik zuritu ote zen bapatean beste emakumea? Bertan zerbait txarra gertatzen zela pentsatzen ari zen, baina pentsamenduak egiaitiko oso urrun zeuden.

.....

Trapua atera eta labana urez garbitzen hasi zen. Bai, dena berak espero bezala aterako zen, ziur zegoen. Laster, laster iritsiko zen bere unea. Pazientzia pixka bat edukitzea besterik ez zuen.

.....

Gaua iritsi zenean, afari ahul bat jan ondoren, egongelan eseri ziren kanpora irten aurretik. Lehenengo eguna zen hura eta ordurarte nahiko ondo zihoan.

Arratsean, supermerkatutik itzuli ondoren kartatan ibili ziren afalordurarte.

Ordubetez hizketan aritu ondoren, baloia hartu eta hondartzara atera ziren bost lagunak. Lehenengo gauean etxe inguruan gertatzea erabaki zuten, geroago aterako ziren herrira. Gainera, gauez herri hartan ez omen zen ambiente' gehiegirik izaten, beraz, nahiago zuten bertan geratu eta beraiek sortu ambientea.

.....

Bost gazteak hondartzara irten zirenean, ez ziren konturatu handik metro gutxitara Armenio begira zeukatela. Jaka zaharra bizkarrean harturik, begi alaiekin begiratzen ziren bere hurrengo biktima izango zirenei.

Bost gazteak hondartzan zebiltzan, denak baloi baten atzetik garrasika. Hiru neska eta bi mutil zeuden. Bi mutilak altuak eta sendoak ziren. Bata praka motzekin zegoen. Bere izterrak ere indar handikoak ziruditen. Besteak sorbaldaraino iristen zitzaion melena rizatu bat zeukan.


Azken honek lelo aurpegia zeukan. «Honekin arazo handirik ez diat izango», pentsatu zuen Armeniok.

Arazorik izango bazuen, galtza estu batzuekin zegoen neska beltzaran harekin izango zen. Ile motza eta gorputz liraina zeukan. Bere aurpegiak kontuz ibiltzeko esaten zion Armeniori.

Ez zen 18 urteko neska arrunt baten aurpegia. Neskato azkar honekin bai, honekin kontuz ibili beharko zuen.

Armeniok bere gordelekuan jarraitu zuen gazteak kanpoan ibili ziren ordu osoan. Aurpegi irribarretsuz begiratzen zien, begietan desioa isladatzen zelarik. Baina ez sexu desioa, Armeniorenä desio okerragoa zen.

Ordubete luzez izan ziren baloiarekin jolasten. Halako batean, etxerantz abiatu ziren denak. Zerbaiten bila joango zirela pentsatu zuen Armeniok eta beste ordu erdiz itxaron zien. Baina ez ziren gehiago atera eta Armenio etxera joan zen, bidean bere amets gaiztoak gorputzuz.



—Beno, lagunok, joango al gara mendira? galdetu zuen Ikerrek.

Aurreko gauean ordubata alderarte ibili ziren kanpoan jolasten eta goizean denak ohean geratu ziren. Orain, ondo bazkaldu ondoren arratsaldea nola pasatu erabakitzen ari ziren.

—Zer? Mendira? Ni oso gustura. Etxe atze horretan zer dagoen ikusi nahi dut. Olaia dutxatik atera berria zegoen. Bere ile motza oraindik bustia zegoen. Aurreko gaueko galtza estuak jantzita zeuzkan eta gainetik Urtz-en nikia.

Mendira joateko proposamena denek onartu zuten. Abiatu ziren eta konturatzerako mendian dexente aurreratuta zeuden.

—Begira hor, txabola antzeko etxetxo bat dago! esan zuen Ikerrek.

Bost gazteak etxeari begira geratu ziren. Aspaldiko etxea zen. Zaharkitua zegoen. Ate ondoan enbor luze bat zegoen, eserleku bezala eta honen ondoan egur puskak zeuden moztuta. Teilatua ere erabat zaharkitua zegoen. Teila gehienak hautsita edo lekuz mugituta zeuden.

—Ba al dago inor barruan? —oihu egin zuen Anek etxerantz gerturatuz.

Inork ez erantzutean, beste lau lagunak Anerengana inguratu ziren. Ez zirudien barruan inor zegoenik, baina atea irekita zegoen.


Ezer esan gabe, Iker etxe barrura sartu zen. Besteak zer egin ez zekitela geratu ziren, barrutik ikerren oihua entzun zuten arte.

—Ane! Begira hemen! Begira zer aurkitu du dan!

Ane korrika sartu zen barrura, beste lagunak gainean zituelarik. Iker mahai baten ondoan zegoen, gainean zegoen zerbaiti begira. Gerturatzean, Ane txunditurik geratu zen. Kristalezko irudi bat zen. Albergean zegoenaren ia berdina zen. Desberdintasun bakarra, hau neska izatea zen.

Kristalezko emakumetxo bat zen. Eskuetan bola itxurako zerbait zeukan eta aulki batean eserita zegoen. Bere begiak zuretan sartzen ziren, bere kristal bizitzatik ikusiko balu bezala.

Ane erabat harrিতuta geratu zen iruditxo hari begira. Nola zitekeen albergeko irudiaren laguna hemen egotea?



Guzti horrek izkutuko esplikazioren bat ez ote zeukan? Arraroa zen benetan...

.....


Labana erabat garbitua geratu zen. Ez zitu-
tuen igurtzi asko behar izan zikinkeria guztia
ezabatzeko. Bere zorroan gorde eta eseririk ge-
ratu zen, bere unea noiz iritsiko zain.

.....

—Beno, zer, joango al gara berriro hondar-
tzara? Maddalen baloia esku artean hartuta
zegoen. Bere bi lagunak baino txikixeagoa zen,
baina bera zen aurpegiz ederrena.

—Bai!!! Goazen berriro hondartzara! eran-
tzun zuten denek.

Kanpoan iluntasuna zen nagusi. Aneren bu-
rua ere nahiko ilun zegoen. Oraindik ez zuen
ulertzen nola zegoen kristalezko iruditxo hura
mendiko etxe hartan. Handik itzuli aurretik,
irudi hari begira egon zen, eta, ez zegoen duda-
rik, biak lagunak ziren. Baina, orain, bere bu-
rutik pentsamendu horiek urundu behar zi-
tuela zioen. Ahaztu eta hondartzara irtengo
zen lagunekin.



—Bai, goazen! —oihu egin zuen Iñigok.

—Segi zuek aurretik —esan zuen Anek—, oraintxe noa ni. Hamar minutu barru zuekin izango naiz.

—Ados, Ane, kanpoan itxarongo dizugu.

.....

Hau izan zen bere lagunek Anerekin hitz egin zuten azken aldia, betirako zain utziko zituela baitzirudien.

.....

Lau gazteak hondartzan jolasten zuten bitartean, Armenio bere aukera iritsi zela pentsatzen ari zen. Aurreko gaueko leku berean zegoen gordeta. Ez zuen asko itxaron beharrik izan, berriro gazteak kanpora irteten zirela ikusteko, baina, oraingoan lau bakarrik irten ziren. Hauxe zen bere aukera.

Kontu haundiz, pixkanaka-pixkanaka etxerantz gerturatzen joan zen. Lau gazteak baloiaren atzetik zebiltzan, beraz, ez zuen arrisku handirik.

Atera iritsi zenean, barruan norbait eskaile-rak jaisten ari zela konturatu zen.



Pauso hotsak pixkanaka gerturatzen zihoa-zen. Atea igaro eta honen atzean gorde zen. Neska gero eta gertuago zegoen. Kantari zeto-rrin.

Ate ondora iritsi zenean, atzetik atera eta ahoa estaliz gerritik heldu zion. Neskak ez zuen horrelakorik espero eta hasieran ez zuen zirkinik ere egin, lagunak bat adarra jotzen ari zitzaiolakoan. Baina, askatzen ez zuela ikustean, ostikoka hasi zen, esku zakar haietatik askatu nahian.

Armenioak gogor eutsi zion. Kanpora irten eta etxe atzerantz eraman zuen kontu haundiz. Hondartzakoak oraindik ere entretenituta zeuden. Lan hau erabat erraza izan zen Armenio-rentzat. Aurrekoak gehiago kostatu zitzaizkion.

Etxe atzera iristean, bertan gordeta zeuzkan soka eta trapu batekin lotu eta ahoa itxi zion. Ondoren, bultzaka mendian gora eraman zuen. Neskaren begietan beldurra ikusten zuen eta horrek alaiago jartzen zuen.

—Lasai, neska, laster zure lagunak ere zurekin egongo dira eta.

Ane negarrez hasi zen.

Ordu erdi bat baloiaren atzetik eroak bezala ibili ondoren, hondarretan eseri ziren pixka bat deskantsatzeko asmoz. Orduan konturatu ziren oraindik Ane ez zela etorri.

—Eh, lagunok, non da Ane? —galdetu zuen Olaiak—. Segituan irtengo dela esan du.

—Begiratzera noa. Ba al zatoz, Iñigo?

Bi mutilak etxe barrura sartu ziren. Kanpotik, Aneri deika ari zirela entzuten zen. Denbora gutxi barru, bi mutilak kondartzan aurkitzen ziren berriz.

—Ez dago etxe barruan..., nora joan ote da?

Labana hartu eta berriro bere zorrotik atera zuen. Bertan bere aurpegia isladatu zen. Aulkitik altxatu eta aterantz abiatu zen. Kanpoan ilun zegoen.

Ilargirik ez zen ageri gaua argitzeko. Hobe, horrela errazagoa izango zen.




Azkenean bere etxean zeukan neska. Ondo kostata eraman zuen haraino. Bide erdian ostikoka hasten zitzaion neska eta masaileko bat baino gehiago eman behar izan zion geldit egon zedin.

Bere burua jira eta bira zebilen. Zenbat denbora pasatu zen azkenengo alditik? Asko... Gehiegi. Orain, ilargirik gabeko gau itxi hartan, berriro ekitera zihoan Armenio, mendietako aizkolari beldurgarria.

Kanpora irten eta aizkora hartu zuen. Garbi-garbia zegoen. Hau neskaren odolaz zikitzeke irrikitan zegoen. Ezin zuen gehiago itxaron. Oraintxe bukatuko zuen honekin eta gero bere lagunak bila joango zen.

Aizkora eskuetan zuela etxera sartu zen.

Armenio neskarengana gerturatzen ari zen. Neskaren beldurra nabari zuen. Bapatean, hots bat entzun zuen kanpoan. Bira eman zuen.



patean aurpegia zuritu zitzaion. Ba ote zegoen beraiek ez zekiten ezer?

—Ni herrira noa —esan zuen Ikerrek—. Patxiri abisatuko diogu. Berak jakingo du zer egin behar dugun. Ba al dator inor nirekin?

—Ni bai —erantzun zuen bapatean Maddalenek.

—Ba ni hemen geratuko naiz. Norbaitek geratu beharko du Ane itzultzen bada ere. Joan zuek, gu hemen geratuko gara.

Ane eta Iñigo etxean geratu ziren, beste bi lagunak herrirantz zihoazen bitartean. Egongelan eserita, kartaten jolastu zuten. Pixka batean entretentzea lortu zuten, baina laster itzuli ziren beren buruak lehengo larridurara.

Azkenean, lurrean eserita egon ziren lagunak itzuli arteko denbora guztian. Ezer egin gabe. Ezer esan gabe.

.....

Lagunak lurrean eserita zeuden bitartean, Ane txabola zahar hartako ohean botata zegoen. Bazekien non zegoen, gauaren iluntasunak ez baitzion jarraitu zuten bidea ezagutzea eragotzi. Mendian aurkitu zuten txabola hura zen. Oraindik mahai gainean zegoen aurreko egunean aurkitu zuten kristalezko emakume-txoa.

Atea ireki zen eta hara eramán zuen agurea ikusi zuen sartzen. Eskuetan aizkora bat zerman. Ane erdi negarrez hasi zen. Horrela bukatzen al zen bere bizia? Biziko oporraldi onenak pasatzeko asmoarekin joan eta horrela amaitu behar al zuen? Beldurra bere gorputzaren jabe egin zen.

.....

Olaia eta Iñigo lurrean egon ziren eserita lagunak itzuli arte. Bakarrik zetozen eta aurpegiak zuri-zuri zekartzan. Maddalen Olaiaren ondoan eseri zen eta negarrez hasi zen.

—Orain bila hastea alferrikako lana dela esan digu Patxik, hasi zen Iker. Ez dugu aurkituko. Ba al dakizue zergatik zuritu zen supermerkatuko emakume hura? Lehen alberge honetan beste 10 gazte egon ziren. Ba 10 haien buruak bakarrik aurkitu zituzten.

Isiltasun izugarri batek hartu zuen etxea.

—Nor dabil hor? —galdetu zuen—. Haizea izango da.

Berriro bueltatu zen. Oraingoan neskarengana zihoan zuzen-zuzen.

.....

—Non sartu da Ane? —galdetu zuen Maddalenek erabat larrituta.

Lau lagunak etxeko egongelan aurkitzen ziren, zer egin ez zekitela. Etxe osoa hiru aldiz miatu zuten eta ez zegoen inon. Kanpoan ere begiratu zuten, baina alferrik. Ez zegoen arras-torik.

Olaia leihotik begira aurkitzen zen. Non zegoen bere laguna? Burua erabat nahastuta zeukan. Kasualitate bat izan ote zen Ane desager-tzea? Edo..., emakume zahar harekin hitz egin zuenean, hark esan zuenaz oroitu zen «oh ez, beste batzuk ez». Eta supermerkatukoak? Ba-

Inori ez zitzaion ezer esatekorik bururatzan.

Gau hura egongelan eserita igaro zuten. Eguna argitu orduko Patxi azaldu zen ate aurrera. Oso serio zegoen eta eskuetan eskopeta bat zeraman.

—Badaezpada ere —esan zuen.

Hondartzara joan ziren aurrena. Alde batek besteraino pasatu zuten. Itsasertzeko arroka edo zuhaitz atzeetan begiratu zuten, han erorita egon zitekeen esperantzarekin. Baina alferrik. Eguerdirako hondartza guztia goitik behera miatua zuten eta han ez zegoen Aneren arrastorik.

Denak etxera itzuli ziren. Lau gazteak, ordea, ez zeuden etsitzeko prest eta zerbait jan ondoren, mendian begiratu behar zutela esan zuten. Patxi ere beraiekin abiatu zen gorantz.

Bidean begiak erne eraman zituzten, lekuz kanpoko ezer ikusiko ote zuten beldur, baina dena aurreko egunean bezala zegoen. Zuhaitzetan urtxintxak hara eta hona zebiltzan, txoriak egunero bezala beren abestiak zabaldu zituzten mendi osoan zehar, baina han ere ez zegoen Aneren arrastorik.

Aurrera jarraituz, aurreko egunean aurkitu zuten txabola hura bera ikusi zuten. Ez zuten espero bertan ezer haundirik aurkitzea, baina bertako jabeari galdetzea pentsatu zuten.

Txabolara gerturatu zirenean, atea zabalik zegoela konturatu ziren. Olaia sartu zen lehena eta izoztuta geratu zen han ikusi zuenarekin. Bere eztarritik garrasi izugarria igon zen.

Lagunak, garrasia entzutean, barrura sartu ziren korrika. Denak batera tente geratu ziren, zoruari itsatsita bezala, lurrean zegoen gorpua ikustean. Patxi sartu zen azkena, eta, honek ere garrasia atera zuen.

Lurrean zegoen botata. Sabelean labaina zeukan sartuta eta honen ondoan odol putzu haundia zegoen.

—Armenio da, esan zuen Patxik, herriko aizkolaria.

Bizar zikin batek aurpegia estaltzen zion eta begiek harridura isladatzen zuten. Jaka zikina zeukan jantzita eta hau ere odolez estalia zegoen.

Honen ezkerrean ohea zegoen. Olaia ohera gerturatu zen. Makurtu eta ohe ondoan erorita

zegoen zerbait hartu zuen. Besteengana bueltatu zen. Haren aurpegia erabat zurituta zegoen. Begietatik behera negar malkoak hasi ziren isurtzen. Eskuetan zeukanari begiratu zioten denek.

—Aneren erlojua da.

.....

Aizkora eskuetan hartuta neskarengandik bi pausutara zegoela, bere atzean norbaitek atea ireki zuen. Ezusteko bisita hura zela eta harriturik, buelta eman zuen Armeniok. Aurrean ikusi zuenak bihotza geldiarazi zion. Gizon argal bat zegoen bere ate aurrean. Gaueko iluntasunak aurpegia estaltzen zion. Eskuetan labaina zorrotz eta dizdiratsua zeukan.

—Zure ordua iritsi da, Armenio —esan zion bisitariak.

Armenioren aurpegia zuri-zuria zegoen. Begiak handitu zitzaizkion eta eskuetan zeukan aizkora dardarka hasi zitzaion. Ez zuen gizon hura ezagutzen, baina eskuetan zeramana ikusirik, bazekien zertara zetorren.

Gelaren beste aldean zegoen ohe gainetik Ane garrasika hasi zen. Arrotza beste pixka bat aurreratu zen. Armenioren aurrez-aurre jarri zen. Halako batean, gelako bakea apurtuz eta Armenio ezustean harrapatuz, arrotza aizkolaria gainera joan zen zuzenean. Armenioren erreflexuak ez ziren batera onak, izuak kokilduta baitzegoen eta ezin izan zuen mugimendu azkarrez bere sabelera zetorren eskua geldiarazi. Min sakon eta zorrotza sentitu zuen sabelean eta ondoren lurrera erori zen. Arrotzari begiratu zion eta honen eskuetan ez zuen labainarik ikusi.

Ane, arrotza beregana zetorrela ikustean, garrasika hasi zen.

—Lasai, neska, ez dizut minik egingo.

Arrotzaren hitz haiek neskaren beldurra, zergatik ez bazekien ere, desagertarazi egin zuten. Gizon hark kontu handiz sokak askatu zitzaion. Ondoren bere begi urdin haiekin begiratu zion. Ane begirada horrek harrapatuta geratu zen. Ezezagunak goxotasun handiz hitz egin zion:

—Zoaz, neska, arriskua pasatu da.

Gizon hari begira geratu zen une batez.

Aurpegi biribila zuen. Ile motz beltzarana eta masaila handiak. Aurpegi hari begira geratu zen, inoiz ahaztuko ez zuen aurpegi hari begira.

.....

—Non ote dago Ane? Olaia negarrez ari zen.

Patxi etxea miatzen ari zen, beste zerbaít aurkitzeko esperantzarekin. Sukaldean eta goiko solairuan begiratu zuen, baina han ez zuen hautsa besterik aurkitu.

—Begira dezagun etxe inguruan, esan zuen.

Lau gazteak kanpora irten ziren. Patxi larri zegoen. Edozein lekutan buru bat aurkitzea espero zuen, aurreko aldian gertatu zen bezala.

Etxe atzera joan ziren. Lau lagunen pausuak kolpe batean geratu ziren. Denek eskuinerantz jiratu zuten burua.

—Ane...! —esan zuen Olaiak.

Ane lurrean zegoen lo, zuhaitz handi baten ondoan. Ilea erabat banatuta zeukan eta bil-bil eginda zegoen hotzetik babesteko. Bere ize-na entzutean, begiak zabaldu zituen erdi lo. Bere lagunak ezagutu zituenean, irribarre bat azaldu zen Aneren ezpainenetan. ■

